



“Microsoft Windows XP sistema eragilea euskaraz”

Data: 2010eko urria
Egilea: Eusko Jaurlaritza
 (Bulego Teknologikoa)

Gida honen helburua da azaltzea zer pausu eman behar dituzun (laneko ordenagailuan zein etxeokan) zure ohiko sistema eragilea euskaraz erabili ahal izateko. Ikusiko duzunez, oso errazak dira eta hiru minutu eskas beharko dituzu prozesu osoa burutzeko.


Informazio orokorra

Jarraibideekin hasi baino lehen, beharrezkoa da ezagutzea zer-nolako eskakizunak bete behar dituen zure ordenagailuak, horretarako, ikus hurrengo datuak:

Instalatuta eduki behar dituzun sistema eragilea eta paketea:

- Windows XP *Professional*-a eta *Service Pack 1* (SP1), gutxienez, edo
- Windows XP *Home Edition* eta *Service Pack 1* (SP1), gutxienez

Aipatutako eskakizunak zure ordenagailuak betetzen dituela egiaztatzeko, jarraitu hurrengo pausuak: Mahaigainean dagoen “*Mi PC/Ordenagailua*” ikonoa arratoiarekin aukeratu, klik eginez. Jarraian, eta arratoia mugitu gabe, sakatu arratoiaren eskumako botoia. Horrela, agertuko zaizu aukera ezberdinez osatutako zerrenda luze bat, horien artean, “*Propiedades/Propietateak*” izena duena. Aukera hori sakatu eta gero, hurrengo irudiaren antzeko zerbait izango duzu ikusgai, eta, bertan duzu jakin beharrekoa:



Baina, zer behar duzu Sistema Eragilea euskaratzeko?

Pakete informatiko bat instalatu behar duzu: Windows-erako hizkuntza-interfazearen paketea edo **LIP**¹ izenekoa, hain zuzen.

LIP horrek Windows gehien erabiltzen den eremuetarako bertsioaren zatikako itzulpena ematen du. LIPa instalatu ondoren, morroi, elkarrizketa-koadro, menu eta laguntza-gaietako testuak LIPeko hizkuntzan bistaratuko dira, zure kasuan, euskaraz. Itzulita ez dauden testuak Windows-en oinarri-hizkuntzan erakutsiko dira.

Adibidez, Windows XP-ren gaztelaniazko bertsioa erosi baduzu eta euskarazko LIPa instalatzen baduzu, testuaren zati batzuk gaztelaniaz geratuko dira.


Hemen azalduko diren pausuek erakutsiko dizute Microsoft Windows XP-n eman beharreko pausuak. Hala ere, esan behar dugu, aipatuko ditugun jarraibideak baliagarriak direla Microsoft Windows 7 sistema eragilea euskaraz izateko.

¹ LIPa: ingelesezko hizkiak dira eta honako esanahi hau daukate: “*Windows Language Interface Pack*”

• **Windows XP-n interfaze-paketea (LIPa) instalatzeko laguntza**

Zure ordenagailuaren hasierako egoera hurrengo irudiaren parekoa izango da seguruenik:

[Ikusi hurrengo irudia, bertan agertzen baita, adibide moduan, Windows XP sistema eragilearen pantaila bat]




Oharra: erabiltzaile bakoitzaren arabera ikono gehiago edo gutxiago agertuko dira mahaigainean.


Windows XP sistema eragilea euskaraz izateko, ondorengo pausuak eman beharko dituzu:

Lehendabizi, eskuratu beharko duzu “*Windows Language Interface Pack*” (LIP) izeneko fitxategia; horrek aldatuko du zure ordenagailuaren lan-hizkuntza. Horretarako, Internet nabigatzailearen bitartez, <http://www.euskara.euskadi.net> webgunera jo beharko duzu (“*Euskarazko Softwarea deskargatzea*” / “*Descarga de Software en euskara*” atala), eta han bertan dagoen fitxategia jaitsi.

Hurrengo webgunean, zuk nahi duzun fitxategia (LIP izenekoa) “*Sistema eragileak*” atalean dago. Hori dela eta, arratoia erabilia, sakatu behar dugu agertzen den “*Sistema eragileak*” esteka.



Atal horretan, ondorengo pantailan agertzen diren paketeak eskuragarri izango dituzu:




Aurrera jarraitu baino lehen, komeni da jarraibideak eta betebeharreko baldintzak irakurtzea, badaezpada.

LIP fitxategia lortzeko, zure kasuan Windows XP-ri dagokiona, sakatu behar duzu “MS Windows XP-ren interfaze-paketea” izeneko esteka. Horrela, jaitziko duzu *lipsetup.msi* paketea.

Fitxategia deskargatzen hasten denean, bi aukera izango dituzu: alde batetik, “Exekutatu programa uneko kokalekutik” Internetetik instalatu nahi baduzu; eta, beste aldetik, “Gorde programa diskoan” instalazio-programa ordenagailuko kokaleku jakin batean gorde nahi baduzu, gero instalatzeko.

Gure aholkua da lortutako fitxategia (*lipsetup.msi* izenekoak, *Windows Language Interface Pack* edo LIPa) gure ordenagailuan gordetzea, adibidez, mahaigainean².


Beraz, gero instalatzeko asmoa izanez gero, “Gorde” edo “Gorde programa diskoan” aukera klikatu behar duzu.



Hori egin ondoren, “WindowsXP_euskaraz” karpetan gordeko da jaitzitako fitxategi berria.

² Arratoia erabiliz, mahaigainean sakatu behar duzu ikonoak ez dauden edozein lekutan, ondoren, eskumako botoia sakatu eta aukeratu “Nuevo/Berria” eta “Carpeta/Karpeta”. Gero idatzi behar duzu gustukoena izena, adibidez, “WindowsXP_euskaraz”.


Hurrengo irudian ikusten denez, erabilitako karpeta ireki eta gero, LIP fitxategiak 5 MB inguru okupatzen du.



Orain, fitxategi hori instalatu beharko duzu. Horretarako, arratoia erabilia, bi aldiz sakatuko duzu arratoiaren ezkerreko botoia fitxategiaren gainean, hau da, klik bikoitza egin beharko duzu.

Oharra: Baliteke, laneko ordenagailuan instalazioa burutzeko, administrari baten baimenak eduki behar izatea. Eusko Jaurlaritzaren langilea izatekotan deitu beharko zenuke ELZ/CAU (Erabiltzailearen Laguntza Zentroa) zerbitzura, hau da, 440 telefono zenbakira, eta bertan EJIeko teknikariek behar duzun laguntza guztia eskainiko dizute, besteak beste, “Administrari baimenak” emango dizkizute instalazioa gauzatzeko.


Aipatutako klik bikoitza egin eta gero, hurrengo irudian ikusiko duzunez, leiho berri bat agertuko da instalazioa hasteko:



Pantaila horretan, agerian dagoen moduan, Microsoft-ek erakusten digu lizentzia-kontratua. Kontratuarekin ados baldin bazaude, eta instalazioarekin jarraitu nahi izanez gero, aukeratu beharko duzu “Onartzen dut lizentzia-kontratua” eta, ondoren, sakatu “Hurrengoa” botoia, leihoaren beheko aldean agertzen dena.

Lizentzia-kontratuarekin ados ez bazaude, berriz, nahiko da *“Ez dut onartzen lizentzia-kontratua”* aukeratzea eta *“Utzi”* botoia sakatzea. Horrela, instalazioa bertan behera geldituko da eta bukatutzat emango duzu hasitako instalazioa.

Instalazioarekin jarraitzen baduzu, LIPak erakutsiko dizu instalazioa gauzatzeko hainbat ohar. Instalazioarekin jarraitzeko, ondorengo pantailakadan ikusgai duzunez, *“Hurrengoa”* botoia sakatu beharko duzu.




Hurrengo leihoan, ondorengo irudian ikusiko duzunez, eta instalazioa hasi aurretik, LIP-ak aukera ematen dizu ezagutzeko zenbat leku behar duzun programa berria instalatzeko.

Beraz, aipatutako informazioa ikusteko, ondorengo irudian adierazten den moduan, *“Behar den lekua”* sakatu beharko duzu.




Hori egin eta gero, aplikazioak jakinaraziko dizu honako informazio hau:



Oharra: erabiltzaile bakoitzaren arabera (eta bere ordenagailuaren arabera) irudian agertzen den informazioa guztiz ezberdina izan daiteke.

Hori aztertu eta gero, eta instalazioa egin ahal izateko, leiho berria itxi eta aurreneko leihora bueltatu behar duzu. Horretarako, “Ados” botoia sakatu beharko duzu, besterik ez.


“Instalatu” botoia sakatu eta gero, euskarazko interfazearen pakete berriaren instalazioa hasiko da. [ikus hurrengo irudia]



Instalazioa amaitu bezain pronto, instalatutako paketeak (LIPa) erakutsiko dio erabiltzaileari ondorengo mezua:



Mezu hori ixteko, “Ados” sakatu beharko duzu, eta instalazioaren azken mezua erakutsiko dizu ordenagailuak:




Mezuak azaltzen duenez, pakete berriak berrabiarazi behar du zure ordenagailua. Dena den, bi aukera izango dituzu: alde batetik, instalazioa une honetan burutzea, horretarako, “Bai” botoia aukeratu beharko duzu; edo, beste alde batetik, instalazioa geroago burutzea, kasu honetan, “Ez” botoia sakatu beharko duzu. “Ez” aukeratzen baduzu, instalazio osoa amaituko da ordenagailua berriro piztutakoan.

Instalazioa orain egin nahi baduzu, arestian azaldu dugun bezala, “*Bai*” sakatu beharko duzu³. Hori egin eta gero, ordenagailua automatikoki piztuko da berriro, hau da, bera bakarrik.

Ordenagailuak, berriro martxan ipini bezain pronto, erakutsiko dizkizu aukera eta menu guztiak euskaraz. LIPa paketearen instalazioa, beraz, bukatutzat emango duzu.

Hemendik aurrera, beraz, Microsoft Windows XP sistema eragilearekin euskaraz lan egiteko aukera izango duzu; ondorengo irudietan erakusten den moduan (Windows XP-ren menua, barne):



Windows 7-ri buruzko ohar garrantzitsua:

Windows 7 izanez gero, eta euskarazko LIPa instalatzeko asmoa izatekotan, zehaztutako jarraibide horiek guztiak baliagarriak dira, hau da, eman beharreko pausuak oso antzekoak dira.

Dena den, posible da *BitLocker* enkriptazio sistema gaituta edukitzea Windows 7-n. Hori horrela izanez gero, beharrezkoa da bertan behera uztea LIPa instalatu aurretik. Horretarako, ireki “*Kontrol-panela*”, hautatu “*Sistema eta segurtasuna*” eta, gero, “*Cifrado de unidad BitLocker*”. Ondoren, aukeratu “*Suspend protección*”.

Windows 7 LIParen 32 eta 64 bit-eko bertsioetarako deskarga ezberdinak daude, beraz, deskargatzen hasi aurretik, jakin behar duzu Windows 7-ren zer-nolako bertsioa daukazu instalatuta: sakatu “*Hasi*” botoia, egin klik eskuineko botoiarekin “*Ordenagailua*” aukeran eta hautatu “*Propietateak*”. Zure ordenagailuari buruzko oinarriko informazioa agertuko da. Begiratu “*Sistema mota*”ko “*Sistema*” atalean. Horrela Windows 7 sistema eragilearen 32 bit-eko edo 64 bit-eko bertsioa exekutatzen ari zaren jakin ahal izango duzu.


Instalazioa bukatu da. Dagoeneko, prest daukazu gure ordenagailua euskaraz hutsez lan egiteko.

³ *Komeni da irekita ditzun aplikazio eta programa guztiak aldeztu aurretik ixtea, instalazioak kalte ez ditzan.*


• Windows XP-ren interfaze-paketea (LIPa) kentzeko laguntza

Orain azalduko dizkizugu zer pausu eman behar diren euskarazko interfaze paketea (LIPa) kentzeko. Prozesua hasi baino lehen, komeni da aldez aurretik programa guztiak ixtea.


Ondoren, Windows-eko “Kontrol-panela” ireki behar duzu. Horretarako, “Hasi” botoia sakatu behar da eta “Kontrol-panela” hautatu, hau da, arratoiarekin klik egin.



Orain, “Kontrol-panela” ikusgai izango duzu. Bertan, hurrengo pantailakadan ikusiko duzunez, “Gehitu edo kendu programak” ikonoa aurkitu behar duzu eta gero, klik bikoitza eginez, ireki.




“Gehitu edo kendu programak” irekitakoan ondorengo datuak (edo antzekoak) erakutsiko dizkizu ordenagailuak:




Aurreneko pantailan ikusgai duzunez, programa zerrenda luze bat agertuko da, zeinak zehazten baititu zure ordenagailuan instalatuta dauden programa guztiak.


Zerrenda osoa ikusi ondoren, bilatu eta aukeratu beharko duzu “Windows-en euskarazko interfazearen paketea”, hau da, instalatu duzun LIP pakete berria. Ondoren, sakatu behar da “Kendu” botoia, eskumako aldean agertzen dena. [ikus hurrengo pantailakada]




“Kendu” botoia sakatu eta gero, ordenagailuak honako galdera hau egingo dizu:



Aurkezten den galderari, “Bai” erantzun behar diozu, LIPa desinstalatu nahi baduzu. Horrela, ordenagailuak hasiera emango dio euskarazko interfazea (LIPa) kentzeari.



Bukatzeko, hurrengo pantailan, ordenagailuak bigarren galdera bat aurkezten dizu:



Prozesua ondo bukatzeko, aukeratu beharko duzu “Yes” botoia (euskaraz “Bai” esan nahi du).

Pausu hauek eman eta gero, gure ordenagailuak (berriro martxan ipinitakoan) berreskuratuko du erdarazko bertsioa.

Informazio gehiago:

Interesagarria izan daiteke, Windows XP-ren euskarazko LIPa instalatu eta gero, “Office bulegotika euskaraz” gidaliburua irakurtzea. Artikulu horrek azaltzen ditu zer-nolako pausuak eman behar dituzun Microsoft Office paketea (Word, Excel, Access eta Power-Point) euskaraz erabiltzeko.